

GIB-AREN

INFEKZIOA
HAURTZAINDE-
GIETAN ETA
IKASTETXEETAN



hezitzaileentzako
informazioa



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

ZER DA HIESA?



Hiesa Giza Immunoeskasiaren Birusak (GIB) sortutako gaixotasun bat da. Pertsona bat kutsatzen denean, GIB delakoa bere sistema immunologikoaren zeluletan, bereziki T4 linfozitoetan, sartzen da eta astiro-astiro deuseztatzen ditu.



NOLA EBOLUZIONATZEN DU GIBAK ERAGINDAKO INFEKZIOAK?

Lehenengo fase batean, GIBaz kutsatutako pertsonak normalean ez du inolako gaixotasun-sintomarik izaten, birusa oraindik ez delako immunitate-sisteman jokatzen hasi.

Denbora, batzuetan urteak, igaro ondoren pertsona batzuk GIBak eragindako infekzioarekin zerikusia duten sintomak izaten has daitezke, birusa linfuzitoak deuseztatzen hasi delako, eta ondorioz, immunitate-sistema ahuldu duelakoa.

Hiesa, GIBak eragindako infekzioaren forma aurreratua da. Pertsona batek hiesa daukala esango dugu, infekzio "oportunistak" edo minbizi jakin batzuk garatzen dituenean.

GIBak eragindako infekzioa daukaten pertsona guztiek, sintomak izan ala ez izan, birusa beste pertsona batzuei kutsatu ahal diete.

Azken urteetan, eretrovirusaren kontrako tratamenduetan lortutako aurrerapenei birusaren eraso geldiaraztea lortu dute, infekzioaren progresioa modu garrantzitsu batean atzeratuz. GIBak eragindako infekzioa daukaten pertsonak, sintomarik gabeko edo sintoma txikiak egoera batean, gero eta urte gehiago bizi dira.



NOLA TRANSMITITZEN DA GIBA?

Organismoaren lau fluido dira transmititzeko birusaren behar besteko kontzentrazioa dutenak, hala nola: odola, semena, baginako sekrezioak eta amaren esnea.

Hortaz, GIBa hiru bidetik baino ezin da transmititu:

- 1. Penetrazio baginal/analeko sexu-harremanetan edo ahoko sexu-harremanetan, preserbatiborik erabiltzen ez bada.**
- 2. Kutsatutako odola daukaten xiringak, orratzak edo beste tresna puntazorrotz batzuk erabiltzen badira**
- 3. Kutsatutako amek GIBa haien seme-abalei transmititu ahal diete haurdunaldi, erditze edo edoskitze garaian.**

Listuek, eginkariek eta gernuek ez dute GIBrik transmititzen.





ZEIN UME DIRA BENETAN KUTSATUTA DAUDENAK?

GIBa, kutsatutako ama batek bere haurtxoari haurdunaldian, erditzean eta edoskitzean transmititu ahal dio. Gaur egun, haurdunaldian erretrobirusaren kontrako tratamenduan egoteari esker modu esanguratsu batean murriztu da haurdunaldian eta erditzean transmititzeko arriskua, gure eremuan ama / seme-alaba transmisioa %2an kokatuz.

Euskal Autonomia Erhidegoan 2001., 2002. eta 2003. urteetan, kutsatutako ume bat jaio zen urteko; 2004.a GIBak eragindako infekzioa duen umerik jaio ez den lehenengo urtea izan da (Ihkus 1. eranskina).

Erretrobirusaren kontrako tratamendu egokia alde batera utzita, GIBak eragindako infekzioa daukan ama baten haurdunaldian zehar amaren antigorputzak plazenta zeharkatu eta fetura iristen dira. Horregatik, kutsatutako amen jaioberrri guztiek antigorputzak dauzkate, horrek kutsatuta daudela nahitaez adierazi ez arren. Beharrezkoa da 15 hilabete itxarotea, amaren antigorputzak desagertu daitezela. Denbora hori igaro ondoren umeak antigorputzak (Ac VIH(+)) izaten jarraitzen badu, horrek, kutsatuta dagoela esan nahi du.



NOLA EZ DA GIBA TRANSMITITZEN?

- 1_ Kutsatutako pertsona batekin bizi, lan egin edo ateratzeagatik.
- 2_ Kutsatuta dagoen ume bat dagoen ikastetxe edo haurtzaindegi berberera joateagatik.
- 3_ Eskua emateagatik, besarkatzeagatik edo musu bat emateagatik.
- 4_ Ohe berean lo egiteagatik.
- 5_ Mahai-tresnak partekatzeagatik, plater berean jateagatik edo edalontzi beretik edateagatik.
- 6_ Komun publikoak, igerilekuak edo dutxak erabiliz.
- 7_ Eltxo baten ziztadagatik edo etxeke animalientzat.
- 8_ Odola jaso edo emateagatik.




IKASTETXEETAN EDO HAURTZAINDEGIETAN TRANSMISIO-ARRISKUREN BAT AL DAGO?

Munduan egindako GIB kasuei buruzko azterketek, ez dute eguneroko kontaktuetan transmisioaren ebidentzia zientifikoa erakutsi. Are gehiago, ez da ezagutzen ikastetxeetan transmititu den infekzio-kasurik.

Beraz, medikuak aginduta ez bada, GIB-eramaileak, umeak zein helduak, ikastetxeetara inolako murrizketarik gabe joango dira.

Hala ere, **ikastetxeetan arau higieniko-sanitario orokor batzuk gogoratu eta bete behar dira (ikus 2. eranskina)**. Ia arau guzti horiek, edozein motako infekzio-prozesuren transmisioa saihesteko aspaldi gomendatutakoak dira.



IKASTETXEETAKO OHIKO EGOERAK

Inkontinentzia (esfinterrak kontrolatzeko ezintasuna) ez da arriskutzat jotzen. **2. eranskinean agertzen diren arau higienikoak jarraitu behar dira.**

Atzamarrak ahoan sartzeak, jostailuak ahoan sartzeak, boligrafoak edo arkatzak murtzikatzeak, edo haize-instrumentuak partekatzeak ez dakar ume batetik bestera GIBa transmititzeko arriskurik, bai, ordea, beste birus batzuek transmititzeko.

Odola agertzen den istripu bat gertatzen denean (zauriak, sudurretik odola botatzea, etab.), beharrezkoa izango da arropa garbitzea eta hondakinak jasotzea, zikindutako gainazalak desinfektatuz eranskinak dakarrenaren arabera. Odoletan dagoen ume **OREN** atentziora eskularruekin egingo da.



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NESKA-MUTIL SEROPOSITIBOAK ESKOLATZEKO PROGRAMA

1987. urtetik hona garatzen ari da, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren artean elkarrekin egindako lan-programa bati esker (3. ERANSKINA).

Programa horren babespean, gaur egun (2005-2006 ikasturtea) Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan GIBak kutsatutako 40 neska-mutil inguru eskolatuta daude.

Programaren planteamendua

- _ Programak honako helburu hauek dauzka:
- _ Neska-mutil seropositiboa modu ez-traumatikoan eskolatzea.
- _ GIBaz kutsatutako pertsona orok daukan konfidentziasuna mantentzea.
- _ Irakasleari, GIBak eragindako infekzioa daukan neska-mutila tratatu behar diren eta istripua izandako edo zauritutako neska-mutilak tratatzeari eta higieneari buruzko neurri unibertsalak hartzen hezteak.
- _ Irakasleak trebatzea hezkuntza-komunitate barruan, neska-mutil horien eskolatzeari arriskurik ez dagoela zabaldu dezaten.

Programak, GIBaz kutsatutako neska-mutilak tratatzen dituzten pediatrien laguntza dauka. Horrek, neska-mutil seropositiboen kopurua, haien osasun-egoera, zeintzuk dauden eskolatuta eta zein ikastetxetara joaten diren modu eguneratu batean jakiteko aukera ematen du.

Programaren garapena

GIBaren kontrako antigorputzak dituen neska edo mutil bat lehenengo aldiz eskolatu egingo dela jakitean, kasu horretaz arduratzen den pertsona edo pediatriak, neska-mutilaren gurasoei edo beren ardura daukatenei matrikula egiteko, baina ikastetxeari neska-mutilaren egoeraren berri ez emateko aholkatzen diete.

Neska-mutila ikastetxean onartua izan ondoren, lehenengo bilera batean programaren arduradunetako batek ikastetxeko zuzendariari neska-mutilaren egoeraren eta jarraitu beharreko prebentziozko neurrien berri emango dio. **Osasun eta Hezkuntza sailburuek sinatutako protokoloaren jakinaren gainean jarriko diote (3. eranskina), eta protokoloaren zentzua eta bere helburuak azalduko dizkiote.**

Zuzendariak baloratuko du, Programaren arduradunekin

batera, neska-mutil seropositiboaren existentzia zein hezitzailek jakin behar duten, informazio hori zuzendariari eta neska-mutil seropositibotik hurbilen dauden irakasleei mugatzea gomendatzen den arren.

Ez da gomendagarria neska-mutilaren egoeraren berri pertsona bakar batek izatea, psikologikoki ona delako hezitzaileek haien hezkak beste norbaitekin partekatu ahal izatea.

Lehenengo kontaktu horien ondoren, neska-mutil seropositiboren bat eskolatzen dituzten ikastetxe guztiekin aldiari-aldi bilerak egingo dira. Bilera horiek, ikastetxe bakoitzak dituen esperientziak elkarri kontatzeko izaten dira, baita gerta daitekeen edozein zalantza edo egonezin konpontzeko ere.



AHOLKU GEHIGARRIA ETA INFORMAZIOA

HIESA PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO PLANA

Telefonoa: 943 00 64 64

Nafarroa Hiribidea, 4

20013 Donostia-San Sebastián

e-mail: sida@apge.osakidetza.net

www.sida-hies.net



1..ERANSKINA

AMAREN FETUAREN TRANSMISIOAREN BITARTEZ
GIBAZ KUTSATUTAKO NESKA-MUTILAK 1996-2004

1996	2
1997	4
1998	5
1999	2
2000	2
2001	1
2002	1
2003	1
2004	0

2..ERANSKINA

HAURTZAINDEGIETAN ETA IKASTETXEETAN
GAIXOTASUN TRANSMITIGARRIAK
KONTROLATZEKO GOMENDIOAK

Ikastetxeetan GIBaren transmisio-arriskua murrizteko, edozein infekzio odolaren bitartez transmititzea saihesteko beharrezkoak diren arreta-neurriak beti bezala jarraitu behar dira:

Kanpoko hemorragia eragiten duten edozein neska-mutilen istripuak

- _ Lehenengo sorospeneko prozedura arruntak jarraitu behar dira, erabilera bakarreko eskularruak (binilo, latex) erabiliz.
- _ Zauriak berehala garbituko dira ur ugari eta xaboia erabiliz, ondoren bendaje iragazgaitz bat (tiritak edo antzekoak) jarriko da.
- _ Larruazaleko odol-zipriztinak berehala garbituko dira ura eta xaboia erabiliz. Begietan eta ahoan gertatu direnak ur ugari erabiliz garbituko dira.
- _ Zoruko edo beste gainazal batzuetako edozein umeren, kutsatuta egon edo ez egon, odol-zipriztinak, ahalik eta arinen garbitu behar dira etxeko lixiba diluituarekin (lixiba parte 1 eta 9 urarenak) erabiliz eta eskuoihalak edo erabili

eta botatzeko paperezko musuzapiekin estali behar dira. Disoluzioak, erabiliko diren momentuan prestatu behar dira.

Garbiketa

- _ Sukaldeak (baxerak, mahai-tresnak...) nahiz bainugelak garbitu behar direnean, garbitzeko ohiko metodoak erabili behar dira, eta ez da beharrezkoa desinfektatzaile bereziak erabiltzea.

Higiene pertsonala

- _ Haurtzaindegietan ume bakoitzarentzat esponja eta eskuoihal indibidualak erabili behar dira, hobe paperezkoak badira.
- _ Hortzetako eskuilak eta odolaz kutsa daitezkeen edozein neska-mutilen bestelako tresnak ez dira partekatu behar.

Langileen arreta-neurriak

- _ Zauri irekiak, larruazalean ebakiak edo lesioak dauzkan edozein pertsonak apositu iragazgaitzak erabiliz estali beharko ditu eta, beharrezkoa bada, eskularruak erabiliko ditu.

Hondakinen ezabapena

- _ Gernua eta eginkariak ohiko moduan komun-ontzian ezabatu beharko dira. Pixontziak ur ugari erabiliz garbitu eta aldian-aldian lixiba diluituarekin (lixiba parte 1 eta 9 urarekin) desinfektatu behar dira.
- _ Hondar zikinak (pixoihalak, konpresak, paperezko eskuoihalak, erabili eta botatzeko eskularruak, etab.), plastikozko poltsa bikoitz batean sartu beharko dira eta poltsa ondo itxiko da. Umeen eskuetatik urrun jarriko da eta ondoren zaborrera botako da.





PROTOCOLO PARA LA ESCOLARIZACIÓN DE LOS NIÑOS Y NIÑAS CON INFECCIÓN POR VIH



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
OSASUN SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

De acuerdo con las recomendaciones elaboradas por diferentes organismos e instituciones nacionales e internacionales, la política de los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación y de Sanidad del Gobierno Vasco sobre la escolarización de las niñas y niños infectados por el Virus de Inmunodeficiencia Humana (VIH), se resume en los siguientes puntos:

1. Los padres y madres o quienes ostenten la tutoría de la niña o niño seropositivo elegirán libremente el centro en el que desean que se escolarice.
2. Las personas responsables del programa de escolarización de los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación y de Sanidad, con la autorización del padre y madre o persona tutora, acudirán a informar a la dirección del centro escolar de la existencia de una niña o niño seropositivo.

Nazio eta nazioarteko erakunde eta instituzioek prestatutako gomendioei jarraituz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Osasun Sailen politika, Giza Imunoeskasiaren Birusak (GIB) infektatutako neska-mutilaren eskolatzeari buruzkoa, ondoko puntuetan laburbiltzen da:

1. Guraso edo tutoreek neska-mutila eskolatu beharreko zentroa libreki hautatuko dute.
2. Eskolatzeko programaren arduradunak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Osasun Saillekoak, haurren guraso edo tutoreen baimenarekin, neska-mutil seropositiboaren diagoela eskola zentroko zuzendaritzari jakinaraztea bertaratuko dira. Guraso edo tutoreek neska-mutila eskolatu beharreko zentroa libreki hautatuko dute.
- 3.- Zentro bakoitzak baloratuko eta erabakiko du

docentes deben conocer la existencia de la niña o niño seropositivo, aunque en general se recomienda que la información se restrinja al director o directora y al profesorado más próximo al niño o niña.


4. Las niñas y niños seropositivos tienen el derecho a que se guarde la confidencialidad sobre su situación, por lo que no se considera conveniente que la presencia de una niña o niño seropositivo en un aula deba ser conocida por los padres y madres de los demás escolares.

5. Esta política se viene aplicando en los centros escolares de Euskadi desde 1987.

zein irakaslek jakin behar duten neska-mutil seropositiboa dagoela, baina orokorrean, informazioa zuzendariari eta ikaslearen hurbileneko irakasleei mugatzea gomendatzen da.

4.- Neska-mutil seropositiboek beren egoera isilpean mantentzeko eskubidea dute. Hau dela eta gelan neska-mutil seropositiboa dagoela gainerako ikasleen gurasoek jakitea ez da komeni.

5.- Euskadiko eskola zentroetan 1987 gerotik ezarrita dago politika hau.


José Antonio Campos Gramados
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urtarrilaren 12an



Gabriel Mª Inclán Iribar
Osasun Sailburua